



SESTAON ENPLEGUA SUSTATZEKO ETA EKONOMIA SUSPERTZEKO UDAL- LAGUNTZEN PROGRAMA 2023

1. Artikulua. Xedea

Oinarri hauen xedea "Sestaon enplegua sustatzeko eta ekonomia suspertzeko Udal Laguntzen 2023" Programari Sestaoko Udalak dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, jardun-eremu hauetan:

- 1. lerroa: Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak.
- 2. lerroa: Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak modernizatu eta berritzea sustatzeko laguntzak.

SESTAON ENPLEGUA SUSTATZEKO ETA EKONOMIA SUSPERTZEKO LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA 2023

I. TITULUA

1. lerroa: Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak.

2. Artikulua. Xedea

Deialdi honen helburua da enpresei erraztea Sestaoko udalerrian erroldatuta eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emanda dauden langabeen kontratazioa.

3. Artikulua. Aurrekontua

Aurrekontua 30.000,00 eurokoa izango da, oinarri hauen 7 a) eta b) artikuluan jasotako kontzeptuei euskarri ekonomikoa emateko. Aurrekontu horri 21.000,00 euro gehiago gehituko zaizkio, laguntza ekonomikoa emateko udalerriko gazteen kontratazioa sustatzeari buruz oinarri hauen 7.c) artikulua biltzen dituen kontzeptuei.

4. Artikulua. Erakunde onuradunen betekizunak:

Laguntza hauen onuradun enpresak izango dira, edozein dela ere haien forma juridikoa, banako enpresaburuak, profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak barne, beraien egoitza soziala eta fiskala edozein izanik ere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Oinarri hauetako 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen pertsona bat kontratatzea eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea.
- Gizarte Segurantzarekiko, Ogasun eskudunarekiko eta Sestaoko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoarekin bat etorritik.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

- Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez, ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.
- Jarduera garatzeko nahitaezko lizentziak lortu izana.

Ofizioz egiaztatuko da erakunde eskatzaileek Sestaoko Udalarekin dituzten betebeharrak ordainduta eta nahitaezko baimenak egunean dituztela.

Honako jarduera hauek kanpoan geratuko dira:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo haien mendeko erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak, laneratzeko enpresak eta, oro har, enplegu-merkatu arruntean sartzen ez den edozein erakunde.
- Aldi baterako laneko enpresak, beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko langileak kontratatzeari dagokionez.

5. Artikulua. Kontratatuko diren pertsonen betekizunak:

Kontratatutako pertsonen baldintza hauek bete behar dituzte:

- Sestaoko udalerrian erroldatuta egotea, kontratazioa hasi aurreko egunean eta, nolanahi ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratu baino lehen.
- Kontratua hasi aurreko datarekin langabezian egotea, hau da, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean eta Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren alta emanda ez egotea. Ondorio horietarako, aurreko kontratuaren oporregatik alta-egoera parekatua ez da langabezia-egoeratzat hartuko. Baldintza hori kontratatutako pertsonaren lan-bizitzaren txostenaren bidez baliozkotuko da.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea kontratazioa hasi aurreko datan.

Ez dira diruz lagunduko:

- Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren, zuzendaritza-karguak dituzten edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organotako kideen ezkontidearekin, ondorengoekin eta bigarren mailara arteko (hori barne) odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideekin egindako kontratuak, ez eta azken horiekin egindakoak ere.
- Enpresa berak langile bera kontratatzea, Sestako langabeen enplegua sustatzeko 2022ko laguntzen deialdian diruz lagundu bada.
- Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera erakunde batek baino gehiagok egin. Dirulaguntza bakarra emango da, eskabidea aurkeztu den ordenaren arabera.

6. Artikulua. Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Laguntzen xede diren kontratazioek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Kontratuen gutxieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da, eta formalizatzeko edozein kontratazio-modalitate erabili ahal izango da, prestakuntza-kontratua izan ezik.
- 2022ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 30era bitartean (biak barne) hasitako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

- Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke, eta lanaldiaren % 50 izan behar dute gutxienez.
- Kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute, diruz lagundutako kontratuaren xede diren pertsonak lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoa kontuan hartuta.

Kalkulu hori egiteko, kontuan hartuko da dirulaguntzaren xede den kontratazio-eguneari alta emanda dauden langileen batez besteko plantilla kontratazio-egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta emanda dauden langileen batez besteko plantilla baino handiagoa izatea. Hori egiaztatzeko, alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren bi txosten aurkeztu beharko dira, Gizarte Segurantzak eginak; bata kontratuaren egunaren aurreko 3 hilabetei dagokiena, eta bestea dirulaguntzaren xede den kontratazioaren egun berekoa.

Plantillaren zenbaketatik kanpo geratuko dira honako arrazoi hauengatik azkendutako kontratuak: langileak bere borondatez lana uztea, adinagatik erretiroa, heriotza edo bidezkoztat jotako kaleratzea.

Lan-kontratuak eskatutako gutxienezko iraupena baino lehen iraungitzen badira, automatikoki itzuli beharko da emandako dirulaguntza, salbu eta iraungitze hori pertsona fisiko eta/edo juridiko kontratatzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatzen bada eta hala egiaztatzen bada agiri bidez, gehienez ere hamar eguneko epean, kontratuari Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik zenbatzen hasita; kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da, lan-kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan.

7. Artikulua. Laguntzaren zenbatekoa.

Ondoren zehazten diren kontzeptu guztiengatik gehienez 6.000 euroko dirulaguntza emango da.

- a) 3.600 euroko laguntza emango da, 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.
- b) Kontratututako pertsona emakumea bada, 900 euroko gehigarria emango da, 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.
- c) Kontratututako pertsona gaztea bada, 1.500 euroko gehigarria emango da, 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Gaztetzat joko da kontratazioaren unean 18 eta 29 urte bitarteko adina duen pertsona.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, emandako dirulaguntza lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da, eta lanaldi hori ezin izango da % 50etik beherakoa izan.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzako kuota barne.

8. Artikulua. Nahitaezko dokumentazioa.

Laguntza-eskabideak 1. lerroko Eskararen eta Zinpeko Aitorpenaren Eredu normalizatuan aurkeztuko dira, lauki guztiak behar bezala beteta eta sinatuta, honako dokumentu hauekin batera:

Erakunde eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

- a) Jardueraren titulartasuna pertsona fisikoena bada:
 - Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Jardueraren titulartasuna pertsona juridikoena bada:

- IFK-IFZ txartelaren kopia edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren IFK-IFZren Ogasun eskudunaren ziurtagiria, baita erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duen pertsonaren NANaren kopia ere.
- Pertsona juridikoaren izenean jarduten duen eskatzailearen ordezkaritza-ahalordea egiaztatzen duen dokumentua.

Jardueraren titulartasuna berezko nortasun juridikorik gabeko errentak eratzikitzeko araubideko entitateei badagokie (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak):

- IFK-IFZ txartelaren kopia edo, hala badagokio, erakundearen IFK-IFZren Ogasun eskudunaren ziurtagiria, bai eta Ogasun eskudunaren aurrean behar bezala erregistratutako erakundearen eratze-kontratuaren kopia, eta erakunde eskatzaileko bazkideen NANaren kopia ere, erakunde horretan lan egiten badute.
 - Nortasun juridiko propiorik gabeko errenten eratzikipen-araubidean (sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa) erakundearen izenean diharduen eskatzailearen ordezkaritza-ahalordea egiaztatzen duen agiria.
- b) Ekonomia-jardueren gaineko zergan izandako altak eta bajak egiaztatzeko agiria, Ogasun eskudunak emana.
- c) Ogasun eskudunarekin ordainketak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiria, ordainketak egunean izatea egiaztatzen duena.
- e) Enpresan alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, kontratazioaren egunaren aurreko hiru hilabetei buruzkoa.
- f) Enpresan alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, diruz lagundu beharreko kontratazioaren egunari buruzkoa.
- g) Hartzekodunaren fitxa.

Kontratututako pertsonari buruzko dokumentazioa:

- a) Kontratututako pertsonaren NANaren fotokopia.
- b) Inskripzio-aldien ziurtagiria, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratazioa hasi ondoren egindakoa
- c) Kontratututako pertsonaren lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egin, dirulaguntzaren xede den kontratua hasi ondorengoa.

Kontratuari buruzko dokumentazioa:

- a) Diruz lagundu beharreko lan-kontratuaren kopia, iraupena eta lanaldia jasoko dituen, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Enplegu Zerbitzu Publikoari eginiko Kontratuaren jakinarazpena.
- c) Kotizaziorako Datuen Txostena (IDC), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.
- d) Langilearen Gizarte Segurantzako alta-aitorpena.

9. Artikulua. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

1. Lehen ordainketa, % 50ekoa, kontratazioaren lehen 3 hilabeteak justifikatu ondoren.
2. Bigarren ordainketa, gainerako % 50a, diruz lagundutako bigarren hiruhilekoaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikatzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, dirulaguntzaren xede den kontratuaren aldia,– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzeko eskubidea eman zuena – Amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Justifikazioetan aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) “Justifikazioa” izeneko Eranskina, lauki guztiak behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Langilearen nominen kopia.
- c) Nominak ordaindu izanaren egiaztagiria.
Eskudiruzko ordainketen justifikazioak bakarrik onartuko dira nominen guztizko zenbatekoa ordainketak egiteko unean indarrean dagoen legezko muga baino txikiagoa den kasuetan. Lege-muga hori webgune honetan kontsulta daiteke: <https://sede.agenciatributaria.gob.es/>. Gainerako kasuetan, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Ez dira onartuko bankuko ordainketa-frogagiriak, nominaren ordainketa enpresa eskatzaileak egin duela argi eta garbi identifikatzeko gutxieneko datuak jasotzen ez badituzte. Oro har, ez dira frogagiri gisa onartuko Internet bidez lortutakoak, baldin eta banketxeak baliozkotuta/zigilatuta ez badaude.
- d) Diruz lagundutako kontratazio-aldiko langileen likidazioaren eta langileen izen-zerrendaren ordainagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak igorriak.
- e) Ogasun eskudunarekin ordainketak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiria, ordainketak egunean izatea egiaztatzen duena.
- g) Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena, laguntza eskatu zen aldian enpresan ziharduela egiaztatzen duena.

II. TITULUA

2. lerroa: Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak modernizatu eta berritzea sustatzeko laguntzak.

10. Artikulua. Xedea

Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak modernizatzeko eta berritzeko inbertsioak egin daitezen sustatzea, baldin eta oinarri hauetako 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

11. Artikulua. Aurrekontua

Aurrekontua 30.000,00 eurokoa izango da.

12. Artikulua. Erakunde onuradunen betekizunak:

Laguntza hauen onuradun enpresak izango dira, edozein dela ere haien forma juridikoa, banako enpresaburuak, profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak barne,



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

beraien egoitza soziala eta fiskala edozein izanik ere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Dirulaguntzaren xede den establezimenduan jarduera ekonomiko bera egitea, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino bi urte lehenago gutxienez.
- Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak Sestaoko udalerrian egotea.
- Erakunde onuraduna pertsona fisikoa bada, jardueraren helbidea ezin izango da izan bere ohiko bizilekua.
- Gizarte Segurantzarekiko, Ogasun eskudunarekiko eta Sestaoko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Enpresa izanez gero, mikroenpresa edo enpresa txiki gisa kalifikatua izateko baldintzak bete beharko ditu, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan edo hura ordeztu edo aldatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera:
 - 1.- 50 langile baino gutxiago izatea, eta deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n duen negozio-bolumena ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa.
 - 2.- 50 langile edo gehiago dituen eta 10 milioi eurotik gorako negozio-bolumena duen enpresa batek kapitalaren %25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoarekin bat etorritik.
- Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez, ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.
- Dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako jarduera guztietarako nahitaezko lizentziak lortu izana.

Ofizios egiaztatuko da erakunde eskatzaileek Sestaoko Udalarekin dituzten betebeharrak ordainduta eta nahitaezko baimenak egunean dituztela.

Honako jarduera hauek kanpoan geratuko dira:

- Finantza-erakundeak (81 taldea)
- Joko-kasinoak, bingo-jokoak, jolas- eta ausazko joko-makinak, jolas- eta joko-aretoak eta beste makina automatiko batzuk (969.2, 969.3, 969.4, 969.6 eta 969.7 epigrafeak), eta horien barruan sartzen diren ostalaritza-jarduerak.
- Sestaoko Udalaren lokaletan egiten diren jarduerak.
- Merkataritza-guneetan edo azalera handietan integratutako lokaletan egiten diren jarduerak.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte-jarduerak egiten dituztenak.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Hainbat establezimendutan garatzen diren jarduera baten edo batzuen titularrak diren erakundeen kasuan, dirulaguntza lortu nahi duten establezimendu (lokal) bakoitzerako laguntza-eskaera bat aurkeztu ahal izango dute.

13. Artikulua. Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Diruz lagundu ahal izango dira diruz lagundutako establezimenduan 2022ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 30era bitartean, biak barne, egiten diren inbertsio-proiektuak.

Egindako inbertsioak behar bezala jaulkitako eta adierazitako datetan ordaindutako fakturen bidez egiaztatuko dira, eta faktura horien ordainketa dagozkion ordainketa-frogagiriak aurkeztuta egiaztatu beharko da.

Eska daitezkeen gutxieneko inbertsioa 600 eurokoa da (BEZik gabe).

Honako kontzeptu hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat, BEZik gabe:

- a) Enpresa-jardueraren garapenarekin zuzenean lotutako informatika-programak, lizentziak eta informazioa prozesatzeko tresneria.
- b) Saltokiko terminalak, kode-irakurgailuak eta etiketatze-sistemak.
- c) Webgune korporatiboa diseinatzea eta ezartzea eta/edo gailu mugikorretara egokitzea.
- d) Irudia eta komunikazioa hobetzearekin lotutako azterlan teknikoak eta zerbitzuak (hala nola nortasun korporatiboaren eskuliburua, publizitate-estrategia, Interneteko posizionamendua).
- e) Altzariak eta merkataritza-ekipamendua.
- f) Jarduera nagusiarekin zuzenean lotutako makineria.
- g) Profesionalek egindako eraberritze-obrak: merkataritza-lokala eta erakusleihoak berritzearekin zerikusia duten obra guztiak (kanpoko zein barruko elementuetan).
- h) Profesionalek egindako instalazio teknikoak (hala nola klimatizazioa, argiztapena, etab.).
- i) Pertsiana motordunak instalatzea, ikusgarri uzteko establezimenduaren erakusleihoa, errotuluak eta establezimenduaren kanpoko estetikan eragin positiboa izango duen argiztapena.
- j) Profesionalen (dekoratzaileak, arkitektoak, etab.) zerbitzu teknikoengatiko ordainsariak, lehen aipatutako instalazioekin eta jarduketekin lotura zuzena duten obrengeatik.
- k) Bide publikoan dauden terrazak eta beladoreak instalatzea, eraberritzea eta egokitzea: terrazetarako altzariak.
 - Terrazetarako altzariak, hala nola aulkiak, mahaiak, eguzkitakoak eta olanak (azken horiek beladore edo fatxadetan bakarrik).

Edonola ere, erositako terrazen, altzarien, ekipamenduaren eta albo-babesen instalazioek Sestaoko Udalak ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Eguzkitakoak, estalkiak eta mahaiak erosteari dagokionez, udal-baimenean jasotako unitateak baino ez dira diruz lagunduko.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Diruz lagun daitezkeen jarduerak baloratzean, kontuan hartuko da obra-lizentzia eskatzeko aurkeztutako dokumentazioa eta/edo azken likidazioan aurkeztutakoa.

Dirulaguntza kalkulatzeko, eskuratze-balioa hartuko da kontuan, BEZik gabe.

Diruz lagundu daitezkeen aktiboak argi identifikatuta dituzten eta, BEZa kanpo, 50 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten fakturak baino ez dira onartuko.

Diruz laguntzeko modukotzat joko da, soilik, aipatutako epean fakturak osorik edo zati batean ordaindu izanaren egiaztagirien bidez behar bezala egiaztatzen den zenbatekoa, nahiz eta fakturan jasotako kostua handiagoa izan.

Nolanahi ere, laguntza jasoko duten aktiboek jarduerarekin lotura zuzena izan beharko dute, eta enpresa berritzera eta modernizatzerara, merkaturatze-teknikak hobetzerara eta kostuak murrizterara bideratuta egon beharko dute.

Elementu berrietan egindako inbertsioak izan beharko dute, hirugarrenek kontraprestazioarekin edo kontraprestaziorik gabe laga gabeak, eta enpresa eskatzaileak berak fabrikatu edo merkaturatu ez dituenak.

"Informazio prozesuetarako ekipoak" atalean, gehienez ere ordenagailu bat (mahai gainekoa edo eramangarria) lagundu ahal izango da diruz enpresa eskatzaile bakoitzeko.

Ez dira diruz lagunduko:

- Garraio-kostuak, aseguruak, administrazio-baimenengatiko tasak, administrazio-lizentziak edo antzekoak, eta inolako zergaren ordainketa.
- Piezak mantendu, konpondu edo ordezkatzeko gastuak.
Kudeaketa- eta fakturazio-softwarearekin eta on line salmentarekin lotutako mantentze-gastuak eta eguneratzeak bakarrik onartuko dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira.
- Bulegoko materialean, tresnerian, baxeretan, mahai-tresnerian edo antzekoetan egindako gastuak.
- Merkataritzako lokalak edo garraio-elementuak erostea.
- Ekipamendua leasing edo renting bidez eskuratzea.
- Dekorazio-gaiak.

14. Artikulua. Laguntzaren zenbatekoa.

Itzuli beharrik gabeko laguntza ezartzen da, diruz lagun daitekeen inbertsioaren %50ekoa, establezimenduko 1.000,00 euroko gehieneko mugarekin.

15. Artikulua. Nahitaezko dokumentazioa.

Laguntza-eskabideak 2. lerroko Eskaberaren eta Zinpeko Aitorpenaren Eredu normalizatuan aurkeztuko dira, lauki guztiak behar bezala beteta eta sinatuta, honako dokumentu hauekin batera:

- a) Jardueraren titulartasuna pertsona fisikoena bada:



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

- Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

Jardueraren titulartasuna pertsona juridikoena bada:

- IFK-IFZ txartelaren kopia edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren IFK-IFZren Ogasun eskudunaren ziurtagiria, baita erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duen pertsonaren NANaren kopia ere.
- Pertsona juridikoaren izenean jarduten duen eskatzailearen ordezkartza-ahalordea egiaztatzen duen dokumentua.

Jardueraren titulartasuna berezko nortasun juridikorik gabeko errentak eratzikitzeko araubideko entitateei badagokie (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak):

- IFK-IFZ txartelaren kopia edo, hala badagokio, erakundearen IFK-IFZren Ogasun eskudunaren ziurtagiria, bai eta Ogasun eskudunaren aurrean behar bezala erregistratutako erakundearen eratze-kontratuaren kopia, eta erakunde eskatzaileko bazkideen NANaren kopia ere, erakunde horretan lan egiten badute.
 - Nortasun juridiko propiorik gabeko errenten eratzikipen-araubidean (sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa) erakundearen izenean diharduen eskatzailearen ordezkartza-ahalordea egiaztatzen duen agiria.
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta eta baje ziurtagiri eguneratua, Foru Ogasunak emana.
- c) Bizkaiko Foru Ogasunarekin ordainketak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, ordainketak egunean izatea egiaztatzen duena.
- e) Hartzekodunaren fitxa.
- f) Egindako inbertsioen fakturen kopia. Faktura horiek zehatzak izango dira eta kontzeptuen deskribapen xehatua egin beharko dute, argi eta garbi identifikatu ahal izateko. Kodetutako kontzeptuen kasuan, horiei buruzko informazio erantsia emango da.
- g) Fakturen ordainagiriak.
- Eskudiruzko ordainketen justifikazioak edo enpresa hornitzaileen kobrantza-ziurtagiriak bakarrik onartuko dira hornitzaile beraren faktura edo faktura multzo baten ordainketaren kasuan, baldin eta horien guztizko zenbatekoa ordainketak egiteko unean indarrean dagoen legezko muga baino txikiagoa bada eta fakturetan ordaintzeko beste modurik adierazten ez bada. Lege-muga hori webgune honetan kontsulta daiteke: <https://sede.agenciatributaria.gob.es/>. Gainerako kasuetan, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Ez dira onartuko faktura enpresa eskatzaileak hornitzaileari ordaindu diola argi eta garbi identifikatzeko gutxieneko datuak jasotzen ez dituzten bankuko ordainagiriak. Oro har, ez dira frogagiri gisa onartuko Internet bidez lortutakoak, baldin eta banketxeak baliozkotuta/zigilatuta ez badaude.

16. Artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza-lerro honen xede den dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, %100, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren.



III. TITULUA

Xedapen komunak

17. Artikulua. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honetan aurreikusitako laguntza-lerroak Sestaoko Udalak 2023rako onartutako aurrekontuko N.2410.48111 ENPRESA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK partidaren kargura finantzatuko dira. Zenbatekoa 81.000 eurokoa izango da, hau da, 30.000 euro 1. lerroarentzat: Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak (oinarri hauetako 7 a) eta b) artikuluan ezarritako kontzeptuak), 21.000 euro 1. lerroarentzat: Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak (oinarri hauetako 7 c) artikuluan ezarritako kontzeptuak), eta 30.000 euro 2. lerroarentzat: Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak modernizatzea eta berritzea sustatzeko laguntzak.

Jasotako eskaeren bolumena dela-eta beharrezkotzat jotzen bada, laguntza-lerro bakoitzari esleitutako kopuruak handitu ahal izango dira, aurrekontu-kredituak aldatu ondoren.

Dirulaguntzen lerro baterako aurreikusitako kreditua ez bada agortzen emandako laguntzen bidez, edo emandako laguntzaren bat ez bada ordaintzen haien baldintzak ez betetzeagatik edo onuradunak uko egiteagatik, soberakin hori beste lerroa bideratu ahal izango da.

18. Artikulua. Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.

Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta dauden pertsonen kasuan, eskabidea, lauki guztiak behar bezala beteta, eta kasu bakoitzean deskribatutako dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Elektronikoa, Sestaoko Udalaren www.sestao.eus webgunearen bidez. Bestela, APAPELen 16.4 eta 16.5 artikuluetan aurreikusitako edozein bide erabiliz aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost (15) egun naturalekoa izango da, dirulaguntza hauen deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Oro har, onuradunek bete beharko dituzte Sestaoko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzan, DLOn eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduan (aurrerantzean DLOO) eskatutako baldintzak.

19. Artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura.

1. Bi laguntza-lerroetarako orokorra:

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabeko konkurrentzia da. Deialdi honen ondorioetarako, lehiarik gabeko konkurrentziazat hartuko da laguntzak sarrera-erregistroaren hurrenkeraren arabera emateko prozedura, betiere oinarri hauetan onuradun izateko eskatzen diren betekizun eta baldintzak betetzen baldin badira eta horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa badago.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, erakunde interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta berariaz adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2. Espezifikoak:

1. lerroa: “Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak”.

Aurrekoa gorabehera, erakunderen batek pertsona bat baino gehiago kontratatzeko dirulaguntza eskaera egiten badu, Udalak, lehenik eta behin, kontratazio baterako laguntza emateari buruzko ebazpena emango du, eta gainerako eskaerak aurrekontu-partidan erabilgarri egotearen zain geratuko dira.. Erakundeek kontratazio bana egiteko egindako eskaera guztiak ebatzi ondoren, laguntza bat baino gehiago jasotzeko eskariak aztertuko dira, sarrerako ordena kronologikoaren arabera.

Era berean, Sestaon enplegua sustatzeko eta ekonomia suspertzeko laguntzen udal-programaren 2022ko deialdian Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzen onuradun izan diren erakundeek egindako eskaerak 2022ko deialdian onuradun izan ez diren erakundeek eskaerei erantzutearen mende geratuko dira. Beraz, aurreko deialdian laguntzak lortu zituzten erakundeek dirulaguntza eskaerei soilik erantzungo zaie, baldin eta aurrekontu-partidan eskuragarritasuna badago.

Era berean, 2022ko deialdian laguntza jaso duten erakundeek lehentasuna izango dute deialdi honetako laguntza bat baino gehiago jaso duten erakunde onuradunen aldean.

2. lerroa: “Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak modernizatu eta berritzea sustatzeko laguntzak”.

1. lerroan gertatzen den bezala, erakunderen batek establezimendu batean baino gehiagotan inbertsioak egiteko dirulaguntza eskatzen badu, Udalak, lehenik eta behin, establezimendu baterako laguntza emateari buruzko ebazpena emango du, eta gainerako eskaerak aurrekontu-partidan erabilgarri egotearen zain geratuko dira. Erakundeek establezimendu bakar baterako egindako eskaera guztiak ebatzi ondoren, laguntza bat baino gehiago jasotzeko eskariak aztertuko dira, sarrerako ordena kronologikoaren arabera.

Era berean, Sestaon enplegua eta suspertze ekonomikoa sustatzeko laguntzen 2022ko udal-programaren deialdian Sestaoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen modernizazioa eta berritzea sustatzeko laguntzen onuradun izan diren erakundeek egindako eskaerak 2022ko deialdian onuradun izan ez diren erakundeek eskaerei erantzutearen mende geratuko dira. Beraz, aurreko deialdian laguntzak lortu zituzten erakundeek dirulaguntza eskaerei soilik erantzungo zaie, baldin eta aurrekontu-partidan eskuragarritasuna badago.

Era berean, 2022ko deialdian laguntza jaso duten erakundeek lehentasuna izango dute deialdi honetako laguntza bat baino gehiago jaso duten erakunde onuradunen aldean.

20. Artikulua. Izapidetzea eta ebazpena

Behargintza Sestaori dagokio deialdi honetan jasotako dirulaguntzak izapidetzea eta ebazpen-proposamena egitea.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Sestaoko Udaleko Alkate-Udalburua izango da dagokion ebazpena emateko organo eskuduna.

Prozeduraren ebazpena APAPELen aurreikusitakoaren arabera jakinaraziko da, hargatik eragotzi gabe emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (aurrerantzean, BDNS) eta eta Sestaoko Udalaren Sestao Zabaltzen Gardentasun Atarian argitaratzea.

21. Artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1.- Deialdi honen 1. ildoan aurrez ikusitako laguntzak bateraezinak dira administrazio edo erakunde publiko eta/edo pribatuak kontzeptu eta helburu bera duen beste edozein dirulaguntza- edo laguntza-mota bat lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak izan ezik.

2.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen 2. Lerroan sartzen diren erakunde onuradunek ezin izango dute beste laguntzarik jaso, edozein dela ere laguntza horien izaera eta eman dituen organoa edo administrazioa, baldin eta, deialdi honetatik eratorritakoei batuta, oinarri hauetan diruz lagundutako inbertsioaren kostua gainditzen badute.

Deialdi honetan xedatutakoaren arabera emandako laguntzetatik zuzenean kendu ahal izango dira beste organo edo administrazio batzuek emandakoak, baldin eta diruz lagundu daitezkeen aktiboei dagokienez helburu bera badute, aurreko zenbakian adierazitako gehieneko mugetara iritsiz gero.

3.- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek 1407/2013 EE Erregelamenduan ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte (2013ko abenduaren 18koa Batzordearena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei edo Europar Batasunaren esparruan emandako beste jarraibide edo xedapen batzuei aplikatzeari buruzkoa).

22. Artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun diren pertsona fisiko eta/edo juridikoen betebeharrak honako hauek dira:

1. Bi laguntza-lerroetarako orokorrak:

- a) Sestaoko Udalak egokitzen jotzen dituen egiaztapen-jarduerak onartzea, eta diruz lagundutako proiektuekin lotuta eskatzen zaion informazio edo dokumentazio guztia ematea.
- b) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, Sestaoko Udalari horren berri ematea.
- c) Behargintza Sestaori behar beste informazio eta/edo dokumentazio osagarri ematea, laguntza-eskaera ulertu eta ebaluatu ahal izateko.
- d) Sestaoko Udalari jakinaraztea deialdi honen bidez diruz lagundutako gastu berberengatik beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso ditzakeen dirulaguntzak. Jakinarazpen hori idatziz egin beharko da, 10 eguneko epean, jakiten denetik zenbatzen hasita.
- e) Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako funtsak itzultzea, deialdi honetan ezarritakoaren arabera.
- f) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak eta fakturak gordetzea, dokumentazio elektronikoa barne, Sestaoko Udalak egiaztatu eta



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

kontrolatu ahal izan ditzan, gutxienez 4 urtez, diruz lagundutako jardueraren azken justifikazioa egin eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Espezifikakoak:

- 1. Lerroa: langilearen lan-egonkortasunari eustea laguntza-eskaeran ezarritako aldian.
- 2. Lerroa: dirulaguntzaren xede diren inbertsioek gutxienez 2 urtez egon beharko dute enpresaren aktiboan, dagokien fakturaren datatik zenbatzen hasita, salbu eta Behargintza Sestaok baloratu beharreko arrazoi objektibo eta justifikatuak azaltzen badira.

23. Artikulua. Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko oinarri hauetan ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen badira. Ondorio horietarako, Sestaoko Udalak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeko. Ondorio horietarako, Sestaoko Udalak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeko

Erakunde eskatzaileak eskabidean adierazitako daturen bat faltsutzen badu, dirulaguntzen deialditik kanpo geratuko da, edo emandako dirulaguntza itzuli beharko du, oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko eskumena duen udal-organoak egindako aukeraren arabera.

Dirulaguntza ez da ordainduko erakunde onuradunak Sestaoko Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu, betiere justifikatzeko epea amaituta badago. Era berean, ez da ordainduko erakundeak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu bazaio.

24. Artikulua. Laguntzak itzultzea

Dirulaguntza gisa jasotako zenbateko ekonomikoak itzuli beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik sortutako legezko interesak ere, baldin eta erakunde onuradunek ez badituzte betetzen deialdi honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak. Hori guztia ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzen kalterik gabe.

Honako hauek joko dira itzulketa-kasutzat:

- Dirulaguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- Dirulaguntzaren helburura ez betetzea.
- Dirulaguntza ematean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jardueri uko egitea edo oztopoak jartzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea 1. lerroaren kasuan ("Sestaoko langabeen enplegua sustatzeko laguntzak").

25. Artikulua. Administrazioaren eskubidea aurkeztutako dokumentazioa berrikusteko eta ikuskatzeko

Sestaoko Udalak beretzat gordetzen du dirulaguntzaren onuradunak zinpeko aitortpenean jasotzen dituen datuak egiazkoak direla egiaztatzeko eskubidea.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

Horretarako, Sestaoko Udalak dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du prozeduraren edozein unetan. Onuradunek eskatzen zaien dokumentazioa aurkezten ez badute, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko dute, hala badagokio.

26. Artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, dirulaguntza hau arautuko dute Sestaoko Udalaren dirulaguntzen udal-ordenantzak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

27. Artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Tratamenduaren arduraduna

Dirulaguntzen deialdi hau izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Sestaoko Udala izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako manuak betez.

Tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren helburua da dirulaguntza bat ematea Sestaon enplegua sustatzeko eta ekonomia suspertzeko 2023ko laguntzen oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakunde onuradunei.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Datu pertsonalen tratamendua Udalari esleitutako botere publikoen egikaritzan oinarritzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikuluekin bat.

Tratamenduaren oinarri juridikoa DLOn, DLOEDn eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan jasota dago.

Datuen bitartekaritza

Sestaoko Udalak, legez esleituta dituen eskumenak baliatuz, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ditzake beste administrazio batzuetatik datozen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Nolanahi ere, Udalak egiaztapen- eta/edo kontrol-lanak egin ahal izango ditu, eta legez agindutako prozedurak izapidetzeko, kudeatzeko eta ebazteko beharrezkoa den edozein dokumentu eskuratu ahal izango du.

Publizitatea

Sestaoko Udalak, dirulaguntzaren deialdia onartu ondoren, BDNSri informazioa bidaliko dio oinarrirei, programari eta aurrekontuko kredituari buruz, bai eta horien xedeari edo helburuari buruz ere. Ondoren, deialdia ebatzi ondoren, Udalak onuradunen zerrenda,



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

emandako eta benetan jasotako zenbatekoa eta, hala badagokio, itzultze- eta zehapen-ebazpenak jakinaraziko ditu.

Edozein pertsonak eta/edo administrazioak kontsultatu ahal izango du BDBNra igorritako informazioa, DLOren helburua gardentasuna eta iruzurraren aurkako borroka sustatzea baita.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin bat etorritik, udalbatzak emandako dirulaguntzen eta/edo laguntzen zenbatekoari, helburuari eta onuradunei buruzko datuak Udalaren webgunean argitaratuko dira, bai eta "Sestao Zabaltzen" izeneko Gardentasun Atarian ere.

Datu-transferentzia

Udalbatzako kideek eskubidea izango dute alkatearengandik edo Tokiko Gobernu Batzordearengandik eskuratzeko korporazioko zerbitzuen esku dauden eta beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren aurrekari, datu edo informazio guztiak. Datu horien artean daude dirulaguntzak emateko datuak.

Gainera, Udalari eska dakiokkeen gardentasunaren ondorioz, datuak interes publikoaren izenean artxibatzeko edo helburu estatistikoetarako erabili ahal izango dira geroago.

Erabaki automatizatua.

Dirulaguntzen eskatzaileen datu pertsonalak ez dira automatikoki tratatuko; hala ere, Sestaoko Udalaren Erregistro Sisteman, Espedienteen Kudeatzailean eta Kontabilitate Sisteman sartuko dira, eta, beharrezkoa izanez gero, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa. Horren helburua deitutako dirulaguntzak izapidetu eta kudeatzea baino ez da.

Datuen jatorria.

Datu pertsonalak interesdunarenak berak emango ditu; hala ere, interesdunak aurka egiten ez badu, Udalak persona interesdun horren dokumentuak beste administrazio publiko batetik ere eskuratu ahal izango ditu.

Datuen hartzaileak

Datuen hartzailea Sestaoko Udala da.

Datuen babesaren arloko eskubideak eta erreklamazio-bideak



Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Interesdunak datuak eskuratzeko¹, zuzentzeko², ezabatzeko³, aurkartzeko⁴, eramateko⁵ eta mugatzeko⁶ eskubideak baliatu ahal izango ditu Sestaoko Udalean, Sestaoko (Bizkaia) Kasko plaza z/g - 48.910 Udal Erregistroan, Sestaoko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://www.sestao.eus/eu-ES/lzapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c>, edo Administrazio publikoen erregistro-gaietako laguntza-bulegoen sarean.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Tratatutako datu pertsonalen eremuak

Sestaoko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako eskumenak garatuz eta deialdi honetan eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko helburuarekin, honako datu-eremu hauek tratatuko ditu:

☒	Oinarrizko datuak: Izen-abizenak.
☒	Identifikazio-datuak: NAN/AIZ.
☒	Lokalizatzeko datuak: helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
☒	Ordezkaritza-datuak: ahalorde-emailearen eta ahalordedunaren izen-abizenak, NAN/AIZ eta ordezkari-tza-ahalordea (notarioa, apud acta,...)
☒	Jardueraren datuak: jardueraren kokapena, alta eta bajak dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean, zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekiko ordainketa egunean izatea, Sestaoko Udalarekin ordainketa egunean izatea, langileen batez besteko plantilla, dirulaguntzak lortzeko aukera galduta duen ebazpen irmo baten bidez zehatu ez izana eta dirulaguntzen onuradun izateko debekuaren kausa sartuta ez egotea.
☒	Bankuko datuak: hartzekodunaren fitxa, transferentziak, zordunketak, fakturak edo beste dokumentu baliokide batzuk eta nominak ordaindu izanaren bankuko frogagiria.
☒	Hirugarrenen datuak: Oinarrizko datuak: Izen-abizenak. Identifikazio-datuak: NAN/AIZ. Bizilekuari buruzko datuak: Erroldatzea.

¹ Berari buruzko datuak tratatzen ari diren ala ez egiaztatzeko eskubidea tratamenduaren arduradunarengandik, eta, tratatzen ari badira, DBEOren 15. artikuluan araututako informazioa eskuratzeko eskubidea.

² Berari dagozkion datu pertsonal okerrak zuzentzeko eskubidea eta/edo datu osatugabeak osatzeko eskubidea

³ Tratamenduaren arduradunak berari dagozkion datu pertsonalak ezereztzeko eskubidea izango du, eta, DBEOren 17. artikuluko inguruabarren bat gertatzen denean, bidegabeko atzerapenik gabe ezabatu beharko ditu.

⁴ Edozein unetan aurka egiteko eskubidea, bere egoera partikularrekin zerikusia duten arazoak direla eta, berari buruzko datuak tratatzea interes publikoaren izenean, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz edo tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek lortu nahi dituen interes legitimoak betez.

⁵ Tratamenduaren arduradunarengandik dagozkion datu pertsonalak formatu egituratuan jasotzeko eskubidea, erabilera komunekoa eta irakurketa mekanikokoa, eta tratamenduaren beste arduradun bati igortzeko eskubidea, DBEOren 21. Artikuluko inguruabarrak gertatzen direnean.

⁶ Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren muga eskuratzeko eskubidea, DBEOren 18. artikuluko baldintzen bat betetzen denean.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

	Enpleguari buruzko datuak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean alta emanda egotea, lan-kontratua, kotizazio-datuak, langabezian egotea, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea, izena emateko aldiak, lan-bizitza, nominak eta langileen izen-zerrenda.
--	---

28. Artikulua. Azken Xedapena

1. Laguntzen deialdia eta oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez.
2. Pertsona fisiko eta/edo juridiko interesdunek eskabidea aurkezteak berekin dakar haren oinarriak erabat onartzea.